


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

287n. zenbakia
iraila 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



KEXANA

**PEDRO LOPEZ DE AYALA, GAZTELERAZ ANTXINAKO
IDAZLEAREN ERRIA.**

- **BERE LIBURU OSPETSUA “RIMADO DEL PALACIO”**
- **EUSKALDUNA, AIALA KOA**
- **IRUDIA: GOIAN CHICAGO N DAGOAN IRUDI-LEKUA:
KABELLO KO ANDRA MARIA (EMENDIK EROANA)
ERDIAN: PEDRO KANTZILLERRAREN ETA EMAZTEAREN
ILLOBIA**

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2003-2004 IKASTURTEA

OGEI TA AMASEI BIZKAIERAZ IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 6AN

36º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 6 DE OCTUBRE

GURE ARTEAN

Pablo AGIRRE MAURI (Basojagolea)

Bakioko Urkitzaurrealdeko Urkitzaurre baserrian jaio zan orain dala 70 urte. Erriko eskolara 14 urte egin arte ibili ostean, baserri eta etxeko bearrak egiten ekin eutson gero. Soldadiska, barriz, Baztan, Iruña, Jaka eta Kantantxun, igaro eban, mendiko pikoxlari zala. Aldi ori bete eta askatu zanean, barriro be, leengo bearretan ekin eutson pinu eta eukalitu basoak egiten. 1957an Bizkaiko Aldundian beargin sartu eta erre-tiroa artu arte basojagole ibili da.

TX: Aldundian sartuteko esku luzeak izango zenduzan, ezta?

PA: 1963. urtean basojagoleak bear jeezala eta, Bizkaiko Aldundikoak leiaketea eratu jeen, lau bearleku betetako. Bost lagun aurkeztu gintzazan eta aretari-ko leku bat neureztat izan zan.

TX: Zelango azterketak izan ziran, gogoratuten zara?

PA: Zati bitan izan ziran: buruzkoa bata eta ezku-koa bestea. Buruzkoan, lau egitarau, eurotan apur bat irakurri eta idatzi. Eskuzkoan, Santa Marinako basoan pinu eta eukalitu basoak egin eta abar...

TX: Gogoratuten zara leenengo soldateagaz?

PA: Bai orixe!! Ile guztikoa 1.600 pezeta.

TX: Zein izan zan zure bearra, zeatz-zeatz esanda?

PA: Landarak sartu, jagon, argaldu. Munarriak jagon, ipini. Basobide barriak eta sugibelak egin.

TX: Egia da munarriak ezaugarriren bat izaten dabela?

PA: Munarriak ezagun-ezagunak izaten dira kanpoaldetik be, kurutze bat-edo eroaten dabe eta. Baina urteak joan eta urteak etorri, ezaugarri ori ilundu leiteke, eta orduan, orpoan teila zatiren bat-edo ipinten jake.

TX: Izango zenduzan larrialdiren bat edo batzuk be, ezta?

PA: Ez jat egundo be aaztuko. 1990. urteko suak ziran. Jata mendia argi-argi egoan, sugarretan. Etxera etorri ezinda, egun bi oso-osoak bertan emon nebazan, eta etxekoak larri, bizirik ete nengoan edo. Bildurgarria, benetan, angoa!

TX: Inguru oneetako munarriak ezagutu eta uga-zaben izenak ondo be ondo jakingo dozuz, Orduan.

PA: Berrogei urte basojagole izan eta, munarriak eta jaubeak ezagutuko ez dodaz ba, etxeko bazterrak baino obeto.

TX: Zeintzuk dira bildurgarriagoak zuretzat, uriolak ala suak?

PA: Neurrian, biak onak eta onuragarriak. Neurritik kanpo, biak ezin txarragoak.

TX: Agur, Pablo, izan daizula ondo merezidutako atsedenaldea. Eskerrik asko.

Jon Aingeru GOIKOETXEA

Berbalapikoa

(B.b=Bakioko berbea)

basojagole= basozain. (B.b)

soldadiska= soldadutza. (B.b)

pikoxlari= pikatxoidun soldadua.

jeezan= ebezan. (B.b)

leiaketa= oposaketa.

jeen= eben. (B.b)

munarri= mugarri. (B.b)

sugibel= (mendiko) suebagi.

onuragarri= ongarri.

atsedenaldi= denkantsu.

Gamiz'ko Kafranga etxea

Antxiñako gauzai buruz Euskalerrian daukagun isiltasuna, mingarria da. Ez dago munduan olako isiltasuna daukan erririk, gureak lako agiritegi urriak daukazenik.

Gamiz deritxon errixuan antxiñakoa da Kafranga baserria, gure jaunerrian diran baserrien artean zarrenetarikoa.

XVI gizaldira arte zutunik egoan Gamiz'en, bere egoera jauskorra izan arren, torre-etxe bat arrizko iru age sendoren gainean eta olako age baten irarrita ikurdia eukan: ponte edo bateo-ontzi baten gainean kurutze bat aukala eta orixe zan Kafranga etxeko leiñargien ikurdia.

Askok aztertu dabe ikurdi au eta euretatik askok irudi orrek zerbait agertu nai dauala diñoe, bear ba'da etxe orretan inguruko lenengo kristiñauen bateatze aundiren bat egin zala edo gitxienez katekumeno askok antxe bateoa artu ebela eta ori edestirako argi geratu daiten irarri zala ikurdi ori ezaugarri santu erreikaz.

Erritxuren bat izango zan lenengoa kristiñautzeari emen asierea emoteko, baiña ez dakigu zein, Gamiz ete da?

Eta noiz izan ete zan jazokizun aundi ori?

Ez dogu baieztatzen ez ukatzen jazokizun ori Gamiz'en izan zala. Ez dogu egiten basterik irudi eder ori or dagoala baieztatu baiño. Zalantza barik erlejiño-giroko jazokizun aundiren bat gogoratzen dauala be bai.

Pontea bera urez beterik, gainean dauan kurutzea eta eusten dautson eleizgizon baten besoa ba-dira zio esan doguna esateko eta aztertu daben askok eta aldi askotan esan dabena ez da egia izateko indarbageko gauzea. Gitxienez ez da gauza sinistueziña edo amets utzezkoa.

Kafranga etxe ori antxiñakoa dala Julian Zazo Ortega VII Fernando'ren izkilluzaiñak esan eban Frantzisko Piferrer eta Antonio Rajula'k, Nobiliario de los reinos y señorios de España liburuan IV, 8'an diñoe esan doguna dana.

Dana dala, Gamiz erri apalarentzat izan beite oroigailu onen aintza, Euskalerrri osoan antzekorik be ez daukana. (Labayru, 1, 147)

BAKIOKO TOPONIMIA DALA-ETA ISIDOR ETXEBARRIARI ERANTZUNA

Bakioko lekuizenen ganean idatzi zeunstana irakurri neban ZER aldizkarian, eta eskerrak emon bear deustudaz nik idatzitakoari zelan edo alan jaramon egin zeuntolako. Orregaz batera, itziko deustazu zuk bertan esandakoari zeozer geituten eta gauza batzuk arean argiago itziten, urteotako ikerketak elduten itzi deusten lekugino, beintzat.

Are (*arie*, *are asko*) eta **ondar** (*ondarra*, *ondar ugari*) berba sinonimoen ganean bertan dinozuna egia izan leiteke, nire eritxi apalean, ostera, are berbea bakio-tar zein Bakio ondoko bermeotarren agoetan antxina-antxinatik onakoa dalakoa daukat. Bakion, gaur egun beintzat, ez da orretarako beste berbarik erabilten are berbea baino. Ortik dator Bakion erabilten dan **aretza** (*aritzie*, *aritzia bat*) berbea ondartzat esateko. Azkenengo berba au antxinatik zabal-zabal dabil edo ibili zan Bizkaian, Busturialde, Uribe eta Arratian beintzat, toponimian, erri eta leku batzuen izenetan antxinatik agiri-agirian lotu dalako: **Areatza** (Arratia, Muxika), **Areta** eta **Ereaga** (Getxo), ...

Bizkaiko toponimian ezeze, Arabakoan be ugari dabil antxinatik **are** berbea. Orretarako, Gerardo López de Gereñuk 1983. urtean argitaratutako "Toponimia Alavesa" liburuari begirakadea emotea baino ez dago: **Areaza** (1537-Garaio, 1681-Azua, 1693-Arluzea), **Arealde** (1724-Erentxun), **Areagana** (1519-Arangiz, 1594-Amarika, 1640-Otaza), **Areaduya** (1717-Ibisate), **Areza** (1537-Azua), **Ariaga** (1768-Erretana), **Ariaza** (1696-Mandojana), **Arieta** (1719-Gopegi, 1741-Arechaga), ... Esan bear da, orduko bertako euskalkia eta eurea guztiz-gutztiz bat ez baziran be, erro batekoak bai bazirala, beintzat.

Geurera barriro etorrita, Bakion eta Bermeon beste orrenbeste. Zelango ez, bada! Aor daukagu eta, esaterako, Bermeoko **Aritzatxu** izeneko aretzea. Jakinda gañera, 1928ra arte Bakioko bi irurenak (**San Pelaio** eta **Zubiaurrealde** auzoak) Bermekoak izan zirana, bada, Bermeoko izan zan zati orretan berorretan, gaur egun Bakio danean, au da, **San Pelaio** (San Pelaidxo) auzoan batez be, urrengo toponimoak dagoz egon:

Areaga (*Aria*) (baserria). Baserri onek oraindinokarren zutunik dirau. Eta orain arte ikertutako agirietan alantxe agertu da beraren izena (ondoan nozkoa dan agina dakarrela):

Areaga: 1839-1857-1883-1893-1894-1924-1928-1932-1944-1955

Area: 1775-1831

Ariaga: 1818-1848-1850 Casa del Arenal: 1704

Casa de los Arenales: 1745

Casa de las Arenas: 1796

f= XVIII. gizaldiko fogerazinoak (Jaime K.erejeta-Labayru)

Arie-etxea (*Arietzie*) (etxea): 1931.

Arimune (*Arimune*) (etxea): 1958 .

Areaga (*Aria*) (1924) Bakioko aretzearen izena da. Bermeoko udal idazkaria (1912-1933) izan zan eta bertako historia liburua ("Historia de Bermeo"-1928) idatzi eban Anjel Zabala Ozamiz idazleak aitatu eban aretzarako izen orí (liburuko 517. orrialdean), orduan Bermeo barruan egoan. Beste izenik ez dot inon aurkitu, ori izenori izan ezik. Esan bear dot be, **Ereaga** izeneko aretzea Getxon badagoala. Eta oker ez banago, toponimo biok erro batekoak dira.

Arizabal (*Arisabal*) (1918) lekuizena Bakioko aretzea zabal-zabal egoan lekuari esaten jakon, au da, **Urzabal** (*Ursabal*) aurre-aurrekoari, erreka nagusiaren beste aldean, atan be.

Areaga-alde (*Arialde*) (1924) eta **Areagaetxekosolo** (*Ariatzekosolo*) (1902) soloak, biak **Ondarra** (*Ondurra*) izeneko baserrikoak izan ziran. Baserri ori, zoritxarrez, orain dala ogeitamar bat urte inguru eratsi eben. Bigarren orren antzerako beste lekuizen bat agertuten izan da **Areagaetxekolanda** (*Ariatzekolanda*) (1902). Bizitza bikoa izan zan baserria eta solook jaube bana euken (ikus beerago). Solook **Areaga** etxetik paraje-paraje egozan.

Areatzasolo (*Arietasolo*) (1944) izeneko soloa **Errenteria** (*Errenteridxe*) baserrikoa izan zan. Baserri au **Urkitzaurrealde** (*Urkitzorralde*) auzoan egon arren, uste dot solo ori **San Pelaio** auzoan egon zala, au da, antxinako Bermeon.

Areagakolanda (*Ariakolanda*) (1928) izeneko landea edo zelaia **Elexpuru** (*Elespuru*) baserrikoa izan zan. Bertan dago Bakio eta Bermeo bien arteko munarrietariko bat. **San Pelaio** auzoko **Arballo** (*Arballo*) inguru nagusiko **Axnabar** (Asnabarre) ize-

neko tontorpean dago egon **Areagakolanda** izeneko zelai ori.

Beste alderdi batetik, **ondar** berbea Bakion be erabili, erabili egiten da, beste esangura bategaz baina. Au da, botilako txakolina utsitu ostean, botila barruan lotuten diran ondakinak adierazoteko, esate baterako. Eta, seguru antzean, **ondar** berbatik **ondakin** (*ondakiñe*) berbea eratorria izango da. Bakioko toponimian **ondar** dalako erro orretan oinarrituta urrengo oneexek dagoz orain arte arakatutako agiritan:

Ondarra (*baserria*), gaur egun galdua da, goian aitatu dodan lez. Baserri au ola eta errotea izan zan, 1745. urteko fogerazinoak dakarren arabera. Alan bada:

Ondarra: 1704-1733-1758-1762-1775-1783-1785-1809-1826-1829-1831-1839-1845-1847-1857-1862-1887-1905-1907-1924-1928-1932-1944-1955

Ondarre: 1818-1833-1848-1850-1893-1894

Hondarra: 1785

Molino de Ondarra: 1745f

Perrería de Ondarra: 1745f

f= XVI II. gizaldiko fogerazinoak (Jaime Kerexeta-Labayru)

Ondarrako zubia (*Ondarreko subidxe*) eta **Ondarrako errekea** (*Ondarreko errekie*) toponimoak egon be badagoz, **Ondarra** baserria egoan ondo-ondoan. Esan bear be, **Areaga** baserria antxe bertantxe badagoala, zubi orren beste alderdian, egon be.

Ondarra-andikoa soloa (*Ondarrandikoa*) (1924) **Minitua** (*Mintxu*) baserrikoa izan zan eta **Ondarra-alde** / **Ondarralde** (*Ondarralde*) (1924) soloa eta beresia **Minitua** eta **Minitua-atzea** (*Mintxuatze*) baserrikoak, erdi bana, izan ziran. Solo biok eta beresia, **Ondarra** baserria egoan lekutik ur be ur egozan. Alantxe dagoz be aitaturako **Minitua** eta **Minitua-atzea** baserriak, aren buruan egon be.

Jakingarri eran edo, ona emen aitaturako baserri bi orreen, au da, **Areaga** eta **Ondarra**, ta lurren izen zerrendak:

Areaga (1924 - Florencio Uñarte Unibaso) (b= basoa; s= soloa)

Areaga - s	Etxeondo - s
Igeltsera - s	Goienburu - b
Goienburu - b	Arkotxa - b
Otabarra - s	Iturriondo - s
Luisena-aristi - b	Arixpe / Arestipe - s
Bekoerreka - s	Armuki - b
Goroza - b	

Ondarra (1924 - Tecla Dolores/Pfa Jenara Barturen Olaskoaga) (b= basoa ; s= soloa)

Etxeondokosolo - s	Etxeurrekosolo - s
Zelaia - s	Areagaetxekosolo - s
Areagaetxekolanda - s	Oiaga - s
Oiaga - s	Oiaga - b
Otandieta - b	Bolenburu / Goienburu - b
Bidezarreta - b	Karabizar - b
Arkotxa - b	Ziitzea - s
Ziitzea - s	Galtzarre - b

Ondarra (1924 - Aniceto Uñarte Gaubeka) (b= basoa; s= soloa)

Areaga-alde - s	Kanposantupe - b
Oiaga - s	San Pelaio-solo - s

Isidor, aitatu zenduan zure arbasoak **Urgitxi** baserrikoak izan zirala. Gaur egun, **Urgitxi** baserria galdua da, baina arenak izandako lurak jaubedunak dira oraindik. Nik neuk, orain arte, ez dot inongo agiritan zuk aitaturako “Ondarreaga-ondoko soloa” izeneko solorik aurkitu, ezta agoz inork esan be. Biotzez eskertuko neuskizu **Urgitxi** baserriaren jaubego agiri orren kopiak bialduko bazeunskidaz, badira 4 bat urte daborduko Bakioko toponimia, idatzizkoa zein agozkoa, batuten asi gintzazana eta orreek arean lagunduko leuskigue aurrera egiten. Zure jakinerako ona ekarriko deusudaz **Urgitxi** baserriaren ganean orain arte guk batutakoak:

Urguichia: 1640-1710

Urguichi: 1755-1796f-1818-1820-1828-1831-1839-1848-1850-1857-1924-1932-1944-1951-1955

Urguichi: 1824-1855-1869-1872-1926-1931

f= XVIII. gizaldiko fogerazinoak (Jaime Kerexeta-Labayru)

Urgitxi (1924 - Rosendo Barasorda) (b= basoa ; s= soloa)

Aurrenaga / Aurnaga - b	Etxeburu - b
Etxeurrekosolo - s	Aurrenaga / Aurnaga - s
Arexpieta - s	Karobialde - s
Ikobaltzaga - s	Etxealdapa - s
Sagarraga - b	Aretximietabarrena - b
Aldapabarrena - b	Egillaurre - b
Arixpe - b	Bekoerreka - b
Arexpuntabarrena - b	

Berbak eta lekuizenak Bakion zelan agoskatuten diran (azentua imini barik) kakoen arteko izki etzanak erabili ta agertu dot.

Iniaki MARTIARTU

GOTZAIÑAK ETA BIZKAIA

GOTZAIÑAK ETA BIZKAIA

Bizkaia'k gotzaiñakaz izan dauzan artu-emonak ez dira beti izan gozoak.

Itzi daigun alde batera autrigoiak izandakoak, nerbioi ibaitik ezkerrentza bizi ziranak, euren gotzaiña euki ebela Balpuesta'n edo Oka'n.

Kalagurri'ren ardurapean izan giñan beste bizkaitarrak eta Kalagurri arabiarren menpera jausi zanean Bibere jauna zan gure gotzaiña eta Armentia'ra etorri zan bere gotzain-tokia artuta eta bizileku lez Akosta (Okoizta) artu eban (Araba'ko Zigoitia'n) monastegi onetako abata bere anaia zalako eta monastegi oneri emon eutsozan bere ondasun guztiak (parrokiak, basoak, soloak, landak...).

Gotzaiñak Armentia'n jarraitu eben arik eta Kalagurri arabiarrekandik eskuratua izan arte eta gero an jarraitu gendun Gasteiz'ko gotzaindegia sortu arte emeretzigarren gizaldiaren erdiz-azkenerantza.

Politika-indarrak eraginda Gasteiz'ko eleiz-barrutia iru zati egin zan, 1949n. urtean eta bizkai'tarrak arrezkero Bilbao'n daukagu geure gotzaiña.

Politikariak alegin aundia egiten dabe gotzaiña beti España'koa izan daiten, baiña ez euskalduna.

Geuk be alegiñak egin doguz Euskalduna izan daiten eta 25 urtean lortu be bai: Mons. Añoberos, Mons. Uriarte, Mons. Larrea, baiña azkenengo au jubilatuz zanean, barriro lengora jo eben politikariak eta kanpokoak ekarri euskuen, bakerako laguntzaille lez euskaldun bat ipiñita: Etxenagusia'tar Karmelo monseñora. Or gagoz orain dala zazpi urterik ona, eta ez ain txarto be, baiña geroari itzaroten.

Beste arazo bat be izan da gotzaiñen eta bizkaitarren artean: Emen beti izan eben indar aundia monastegiak eta oneik eskuratzen ebezan amarrenak, laikoen eta eleiz-zaintzaleen eskuetarajusten ez ziranean.

Gaiñera, bizkaitarrak beti izan dira erritarren eskubi-deak zaintzen onak eta amarrenen dirua Kalagurri'ra joatea eta andik aginduak etortzea, naizta eleizakoak izan, ez eben onartzen eta Aita Santuaren naiz Gotzaiñen aginduak be foru-baimena edo "pase foral" bear eben onartuak izateko eta ori ezin onartu izaten eben gotzaiñak. Arazo ori konpontzeko batzar asko egin ziran Errege Katolikua foruak zin egitera etorri zanean, gotzain batzuk ekarri ebazan lagun eta oneik kanpoan, Bizkaia'ren muga, geratu bear izan eben.

Giro orretan ulertzen da orain Labayru'ren IV, 106'tik artzen dogun gai au.

Elebarri baten antzekoa da, foruaren aurka gure jauneria ikertzera etorri zan Kalagurri'ko gotzaiña il egin ebela diñoan kondaira: Bolibar parroko zintzaille zan Gonzalo Pérez de Bolibar izan ei zan gotzaiña aurrean erabilli ebana, 1520n. urte inguruan. Onek bere lagunakaz bat eginda, arrapau eban gotzaiña Arrazola'ko mendian eta sendo, erruki barik, il egin ebezan gotzaiña ta laguntzailleak eta jazokizun orren gomutagarri lez antxe dago oroitaria. Kurutze ikusgarri bategaz eta arri orreri "Ipsiti-Arria" deritxo.

Orrean agertzen da albiste ori Ziortza'ko agiritan.

Baiña jazokizun au guzurrezkoa da, beste errazoi askoren artean urte aretan eta ingurukoetan ziran Kalagurriko gotzaiñak noz eta non il ziran argi dagoalako, ez iñor eta ez iñoiz Bizkaia'n.

Urte orretan Kalagurri'ko gotzaiña D. Juan Castellanos y Villalba zan eta onek aurreko urtean, 1519n. ean, ituna egin eban Jaunerriagaz artzain ikustaldiak Bizkaia'n egin al izateko eta gotzain jarraitu eban 1522n. urtera arte. Urrengo gotzaiña Alonso de Castilla izan zan, Pedro Ankerra erregearen lobeaz, eta 1523n. urtean asi eban gotzaintza. Katxopin idazle ospetsua izan leiteke jazokizun ori asmatu ebana.

1520n. urte orretan, uztaillaren 16, 17, 18 eta 19n. egunetan D. Juan Castellanos gotzaiñak Kalagurri'ko sinodo nagusia ospatu eban Logrono'n eta Bilbao'tik sinodo orretara Zumeltzu'tar Juan artzipretea joan zan, beste artzipreste batzuk eta lekaideen buru ziranak lagun ebazala. Olakoa edo antzeko arazoak eta Aita Santuak España'ko erregeai emondako eskubide batzuk aztertze.

Arzipresteak eleizearen ondasunen eta etorrien azterketa egin bear eben zeatz eta ondasundunai ziñez agertu-erazoten jakela zeatasun ori. Oiñarri lez 1517-1520 urteak artuko ebezan. Eta urte orreitan D. Juan Castellanos Villaba zan Kalagurriko gotzaiña. Geien geien be onartu leikena, bere ordezkoren bat il ebela izan leiteke.

Gotzaindegian gotzain-ordezkarri ta laguntzaille bizkaitar bat zan orduan: Olazabal kanoniku arratiarra. Onek abenduaren 10n. egunean idazki bat izenpetu eban Bilbao'n ospetzen ziran agindupeko jaiak esandako sinodoak aginduak baiño ez daitezela izan agertzeko eta ez diño agindu ori "sede vacante" edo gotzainbageko aldian emona danik.

KALAGURRI TA ARMENTIA'KO GOTZAIÑAK

Ez dakigu Kalagurri'ko Gotzaindegia zein urtetan sortu zan, baiña bai gotzain ospetsuak euki ebazala eta guztiz zabala izan zala. Kalagurri uri ospetsua zan lenago be, leiñargi asko eukazala'ko, Erroma'ren erria zalako, dirua irarteko eskubidea eukalako eta edestilari ospetsuak aitatzen dabelako: Libio, Zesar, Balerio, Plinio...

Erri onetan martiritza jasan eben Emeterio eta Zeledonio santu euskaldunak, anaiak eta gudariak, 300n. urte-inguruan. Gaur ez da bertakoak ziran Kintiliano ta Prudentzio ospetsuen aldian zan bestean ospetsua. Ez dakigu noiz egin zan kristiñau erri aundi au, baiña naikoa arin sartu ba'zan be, oraindiño Armentia'ko San Prudentzio'ren aldian (800. urtean) guzurrezko jainkoak gurtzen ebezenen aurka egin ebazan erri aretan berbaldiak santu onek.

Kalagurri'n agertzen diran lenengo gotzaiñak ez dira ziurrak, esaterako Amedo Sadacia'koa zala esaten dana 288n. urteko Maximiliano euskalduna. Ziur ezagutzen dogun lenengo gotzaiña Silbano dogu (464) (Iruña'n ez da ezagutzen gotzaiñik oraindiño: lenengoa 589n. urtean). Auxe dogu ba, Bizkaia bere ardurapean euki eban lenengo gotzaiña. Eta ezaguna da gotzaiñak izendatu ebalako Aita Santuaren baimen bagerik eta orregaitik salatu izan zan Hilario Aita Santuaren aurrean 457n. urtean. Ez eben zigortu, Aita Santuak biotz onez gure lurraldeak urrin egozalako ulertzekoa zala uste izan ebalako barririk emoteko erarik ez izatea.

Bizkaia beti izan zan Kalagurri'koa, Armentia'ko aldia eta Balpuesta'koa zan autrigoiien aldea aparte dirala.

Kalagurri'n lenengo gotzain ziurra Silbano dogu. Bederatziz gotzain dagoz arabiarrek sartu-aurretik eta IX gizaldian, arabiarrek sartu ziran, Armentia'ko gotzaindegia sortu zan. Kalagurri'ko gotzaiñak iges egin eban Asturietara ordezkorik itzi bagerik eta Araba'n batu ziran kristiñau asko eta Bizkaia'koak gotzaiña nai eben eta 757n. urte-aurretik, 466n. urte inguruan. Kalagurri'ko Silbano'k sortu ebazanetariko bat. Ori diño Tejada'k, baiña larregi maite ete dauan bere Araba! Orrelean ba'litz, Armentia ez litzake arabiarren eragiñez sortua, Naxera'gaz batera lenago Silbano'ren aldian bear ba-da. Ez da sinestekoa.

Armentia'ko lenengo gotzaiñak Teodomiro-830, Rekaredo-850 ta Bibere dira.

Bibere lendik be ezaguna dogu, Okoizta'ko (edo Akosta'ko) monastegian bizi izango zalako, abata zan Pedro bere anaiagaz: Zigoitia'ko Bixente deunaren monastegi oneri emon eutsozan ainbat ondasun-871. Au da ziur Armentia'ko lenengo gotzaiña.

Armentia'ko urrengo gotzaiñak oneik dira: Munio-931, Julian-984, Garzia-996, MunioII-995-1034, Juan-1032-1034, GarciaII-1034, Fortunio I-1054-1056, Vela-

1056-1057, Munio III-1085, Vela 11-1057-1059, Garcia UI-1060, Munio IV-1061-1062, Vela m-1062, Munio V-1062-1065, Fortunio II azkeneneko. Eta luezero: 1065-1087.

BALPUESTA'KO GOTZAINDEGIA TA EUSKALDUNAK

Euskaldun autrigoiien gotzaiña, arabiarrek urreratu baiño lenago Oka edo Aukia'n egoan eta gero be orra biurtu zan arik eta ortik Burgos'era igaro arte. Antzadagoanez, Kalagurriko lenengo gotzaiña izan zan Silbano'k sortu eban eta ori ta antzeko gotzaitegiak Aita Santuaren baimen bagerik sortu ebalako auzi garratza izan eban. 464n. urtean sortua da.

716n. urtean arabiarrek sartu ziran, Oka menperatu eben eta gotzaindegia andik kendu egin zan eta Balpuesta'ra aldatu, Añana'ko Gatzaga'tik amar km'ra eta D. Juan izan zan luzaro lenengo gotzaiña, 44 urtean. Eleizbarruti orretakoak ziran Burgos'en iparraldea eta Santander'erantza, Araba barru dala.

Goztzen asko dira ezagunak Balpuesta'n: Felmiro-852, Santxo II-863-869, Almiro-870, Albaro-881, Fredulfo, arabarra-894, Natal-898, Diego-900, Felmiro 11-911, Diego II-929-957.

Emen, 934n. urtean, barriro sartzen da Gotzaiña Oka'ra baiña beste bat geratzen da Balpuesta'n.

Balpuesta'n: Diego II-975- (18 urte Balpuesta gotzain barik), Merino-984, Blas-997, Garcia-1034, Aton, Antonio-1049-1052, Garcia V-1064, Munio-1067-1084. Au izan zan azkenengoa eta Gotzaintegia Burgos'era aldatu zan. Balpuesta aurrerantzean "kolegiata" izango da. Oka'n jarraitu eben gotzaiñak-1084n. urtera arte. Orduan Bizkaia'ko Enkarterria Burgos'en menpean geratu zan.

D. BIBERE, GURE ANTXIÑAKO GOTZAIÑA

Gauza egokia da gure Eleizearen edestia jakitea eta orain VIII gizaldira joango gara.

Bizkaia betidanik egon da Kalagurri'ko gotzaiñaren ardurapean, Balpuesta'koak ziran autrigoiak izan ezik, baiña VIII guzaldian arabiarrek sartu ziran Kalagurri'ra eta dana zapuztu eben.

Inguruko gotzaiñak iges egin bear izan eben eta ikusi nora joan ziran: 915n. urtean Galizia'ko Iria'n agertzen dira eurentzak bizigarria lortzeko "dekania" batzuk artuta, Zaragoza'koa Santa Maria de Solis'en, Tarazona'koa Naranko'n eta Oska'koa be Naranko'n. Kalagurri'ko azkenengoak Teodomiro ta Rekaredo ziran.

Baiña Araba-barruan gotzaindegi bi sortu ziran Naxera'koa ta Armentia'koa.

Armentia'koa zarragoa ei da eta arako Silbano ospe-
tsuak egin ebazan gotzaien arteko bat ei zan, Aita Santua-
ren baimen barik egin ziralako Silbano orrek epaikundea
izan eban eta Aita Santuak askatu egin eban.

VIII gizaldi orretan aurkitzen dogu D.Bibere gotzai-
ña. Onak Kalagurritik urten bear izan eban, baiña ez zan
joan Galitzia'ra. Berau, semez, Leon'goa zan baiña
Araba'n bizi zan sendiagaz: Ama Oktabia, aita, Arrontzio,
anaia ta lobeza agertzen dira.

Gure D. Bibere gotzaiña oso aberatsa zan eta bere
ondasun guztiak emon eutsozan, Zigoitia'n daukagun
Bixente Deunaren monastegiari, etxe onetan bere anaia
zalako abata.

Ona emen emondako ondasunak: Estabillo'ko Engara-
zi deuna ta Martin deuna, (lurrak, mastiak, soloak, piña-
diak, oleak, sagardiak). Arganzon'go Andra Mari,
(Zelaiak, errotea ta soloa). Salbatzaille deuna, Zipriano
deuna, Erroman deuna, Agate deuna, Azilo deuna, Eme-
terio ta Zeledonio deunak, Kristobal deuna, Donejakue,
Kurutze deuna, Eupeme deuna, Agate deuna, Torota
deuna.

Agiria izenpetzen dabe Bibere gotzaiñak, D. Pedro
abatak eta D^a Oktabia'k Okoizta'n eta azkenean ondasun
guzti orreik monastegiarentzat izan daitezela diño, gizal-
dien gizaldietan.

Urte batzuk egin ebazan D. Bibere gura gotzaiñak Okoiz-
ta'n bere senideakaz, beste gotzaiñak Galizia'n egozan artean.

Baiña 93ln. urtean Armentia'ko gotzain I Munio da eta
bitartean (871-931) irurogei urte dagoz. Zalantza barik, or
beste gotzain bat izango zan, baiña ez dakigu izenik be eta
ez dau ezelako agiririk izenpetzen.

Ba-da norbait D. Bibere gure eleizearen edestian eta
batez be argitasun aundia dira beronen bizitza eta beronen
emoitzak Okoizta'ko Bizintxo deunaren monastegiaren
garrantzia azaltzeko.

ALDI LARRIA: D. MATEO MUJIKA

Irakurleakaz alkar-izketa dan lantxu au amaitu baiño
len, Bizkai'ko gotzain izan diranen artean aldi larri eta
oker bat aztertu bear dot: Mateo Mujika gotzaiñaren
aldia.

Mateo Mujika luzaro izan zan Gasteiz'ko eta orrexe-
gaitik Bizkai'ko gotzaiña: Beragandik artu neban sendo-
tza deritxon sakramentua 1935n. urtean eta oraindiño
gure gotzain zan 1942n. urtean, Karmelo Ballester izen-
datu ebenean.

Gure Bizkaia'n, eta Euskalerra osoan indar aundia
artzen joan EAJ alderdia eta bizkaitarrik geienak
ziran autarkia alderdi oneri emoten eutsoenak, baiña

ba-egozan zalantza batzuk, abertzaleen jokabide au
kristiñau izateaz bateratu ete leiken eta argi ta garbi
itaundu eutsoen Mujika gotzaiñari autarki ori bidez-
koa ete zan.

Gotzaiñak be argi eta garbi erantzun eban: Fede alde-
tik ez egoala eragozpenik gizartean jokabide ori artzeko.

Orixe izan zan españatarrak Mateo Mujika gure
gotzaiñari iñoz parkatu ez eutsoen "pekatua":

Lenengo ta bein errepublika edo erkalak erbestereratu
eban.

Gero guda negargarria sortu zan eta Goma kardenal
maltzurak eskatuta eta beartuta, Mateo gure gotzaiñak
eta Iruñako goi-gotzain zan Martzeliño Olaetxea'k pasto-
ral edo artzain-agiri negargarri bat argitaratu eben Fran-
co'ren gudea goratuz.

Naikoa ete zan ori agintari españatarren gosea asetze-
ko? Ba, ez! Seminariora eroan eben gure gotzaiña eta an
zin egin erazo España'ko banderea.

Gotzaiñak bere askatasuna oiukatu eban eta beartu egi-
ten ebelako, ez eban nai egin zin ori. Barrero erbestera
joan bear izan eban eta Gotzain-ordezko izateko Balen-
tzia'ko gotzain laguntzaille zan D. Jabier Lauzurika eka-
rri eben Gasteiz'era. Au oso-osoan eta lotsagarriro
makurtzen zan guda-irabazleen aurrean.

Eta emen asten da nik esan nai dodana:

Lauzurika Gotzain-ordea etorri zanetik Karmelo
Ballester etorri arte, gure seminarioan sekula ez zan aita-
tu erbestean politikoak zigortuta euken Mateo'ren izenik.
Gozaiñaren alde otoitz egiten gendun, aundikiro, baiña
beti izendatzen zan Frantzisko edo Xaberio: "Oremus
pro pontifice nostro Xaberio: Dominus conservet eun..."
Iñoz ez zan otoitzik egin, izenik esan be ez, gure gotzain
zan Mateo'ren alde. Noz zuzenduko ete da okerkeri
aundi au?

Ballester Gotzaiña etorteko, Mateo'ri bere lekua izte-
ko eskatu eutsoen eta orrelan egin eban. Orduan ekarri
eben Zarautz'era eta antxe ikertu gendun.

Joan zan ikertzera Ballester gotzaiña be eta Mateo'k
ondo artu eban: Bere gelan belauniko egoala. Ballester
be belaunikatu egin zan eta orrelantxe biak alkar besar-
katu eben eta oneik izan ziran Ballester gotzaiñaren
berbak: "Gotzain anai eta martiri lez besarkatzen zai-
tut".

Erbestean egoala Mateo'k pastoral bat idatzi eban
Joxemiel Barandiaran'ek eta Alberto Onaindia'k eskatu-
ta. Pastoral esaten jako eta da, baiña Josemiel'eri eginda-
ko eskutitz lez agertzen da. Or ikusten da D. Mateo'ren
askatasunezko pentsaerea.

Olazar'tar Martin

NAFARROA OINEZ - IRUNBERRI

Leendabiziko aldiz idazten dudala "ZER" aldizkari onetan. Au dela eta, pentsatu dut ongi irudituko zaizuela "Bizkaia" izenaz Nafarroan jaso ditudan zenbait lurraldeen izenak emen jartzea eta Irunberri aldean kokaturik daudenak. Eskertu bear dut Eusebio Rebolé iruberritarak eskeini diren laguntza.

a) "Bizkaia", Aibar aranan dagoen lurralde txiki bati ematen zaion izena, eta ondoko zenbait erri biltzen dituena.

b) "Bizkaia". Nafarroako erdi egoaldeko Moriones errian kokaturik dagon sakan bat.

d) "Bizkaia", Aibarko erri-basoa, 535 Hc. dituena ari-tze ornitua.

e)"Bizkaia". Elortzeko Torresen dagon ingurunea.

Lurralde auetan dago Irunberri. "Villa" honek 1500 biztanle ditu eta Agoitz-Irunberri "cuenca" prepirenaikan kokaturik dago. Iruñetik 38 kilometrotara. Irati ibaiak, bere lurraldeak zearkatzen ditu, Zaraitzu ibaia ere bertan artzen duelarik. Bi ibai auk elkaturik, Irati izenarekin Irunberriko zintzurra pasatzen dute.

Plinio, erromatar idazlea izan zen Irunberrieraz mintzatzen den leendabizikoa, Kristo ondorengo I mendean. Idazle onek zion, Pirineo alde batean bizi ziren errialde batzuetaz mintzatzerakoan, ortxe bizi zirela "ILUNBERRITANI", oraingo Lumbierrekin identifikatzen dena. Euskarak, iraun zuen bizirik erri onetan XVIII mende arte.

1307tik izan zen arresiz inguratutako erria, toki berezia zuelako Nafarroako Erreinuan. "Iribildu ona" zenez,


kokalekua izan zuen Nafarroako Gorteetan 1319tik, eta auen bileretara joan zen azkenekoetaraino. Azkenekoak 1839 urtean bildu ziren.

Mendixka baten gainean dago erri au, eta erdialdean egina du eraikuntza nabarmenena, etxeetan berriz erdi aroko atarieen itxurak XVI mendekoak direla oroi arazten dizkigute.

Bainan, aurten ospatuko da NAFARROA OINEZ, euskararen aldeko festa ederra Irunberri. 1980-1981 ikasturtean eman zion asiera ikastolak 9 aurrekin. Jose Enrique Garces ikastolako presidentek dioen bezala, egun, eltzen dira Erripodas (On Marcelino Garde egon zen herria), Arbonies, Usun eta Tabarretik ere. Nafarroa, izkuntza aldetik, iru zatitan banaturik dago, eta erri oni ez euskalduna den tokian kokaturik egotea.

Afera au dela eta, gero eta oztopo geiago izaten dituzte ekintza askotarako. Leen ezkuntzako ikasketak egiten dituzte eta gero pasa dira Zangotzara, 12 kilometrotara dagon irira. Orain, antzinako konbentuan dago, eta festan ateratzen den diruakin egingen dute eraikuntza berri bat. Nafarroa Oinez urbiltzerakoan, kontatuko dizkizuet anitzenez gauz geiago. Bitartean, ZER aldizkari irakurleei agur beroena.

XOLE ERBITI



EUSKAL ASTEA

Urte guztietan lez, aurten be EUSKERAZALEAK ALKARTEA´K Euskal Astea eratuko dau.

24.- Astelena: Bertsolaritza: Legarreta´tar Asier´ek.

25.- Martitzena: Euskaleriaren buru-jabetza: Atutxa´tar Paul´ek.

26.- Eguastena: Abizenak: Olazar´tar Martin´ek.

27.- Eguena: Euskerearen Agiri Nagusia: Latxaga´k.

28.- Barikua: Euskalerriaren Buru Jabetza (II) Ibarretxe´ren esondapena: Atutxa´tar Paul´ek.

EGUNAK: Azilla (Zemendia)´ren 24, 25, 26 27 eta 28a izango dira.

TOKIA: EUSKERAZALEAK Alkartearen egoitza.

ORDUA: Arratsaldeko zortzirak.

GOTIKOA

Erdi-aroaren bigarren zatira sartzen gara orain: XIII, XIV eta XV gizaldietara.

Bigarren zati au asten danean, gauza asko asko aldatzen dira: Uriak sortzen dira eta eleiza aundien bear-izana agertzen da. Bilbao´n bertan, uri zarretik urten eta alboan egin bear izan zan Frantzisko Deunaren parroikia eta uri zarrean bertan be katedralari azkenengo ikutuak egiten jakoz. Lekeitio´n egiten da elieza eder bat.

Baiña aldakuntza oneik ez dira geiegi erri txikietara satzen, kristiñauak lengo eleiza txikietan jarraitzen dabe. Gitxi dira eleiza gotikoak. Ona emen eleiza gotikua dauken erriak: Bilbao´ko San Anton, Gernika´ko Andra Mari, Balmeseda´ko San Severino, eta beste batzuk osooan gotikoak ez diranak.

Salerosketea ugaritzen da asko eta lengo jauntxu feudalen lekua orain burgesak artzen dabe, erriaren alboan (burgoan) bizi izaten asi ziran aberats barriak, komertzioaren bidez aberastu ziranak. Or sortzen dira, baita, langilleen gremioak eta kofradiak.

Uri sortu-barri orreik ormaz inguratzen dira, lapur asko ebillalako errezago zainduak izateko. Baiña Bizkai´ko errietan ez zan lortu sendiak pillatze ori.

Irakaskintza bera be, len, katedraletan eta lekaide-etxeetan emoten zan, baiña bigarren zati onetan Ikastetxe nagusiak sortzen dira eta “universitas” daroe izena, ikasleak eta irakasleak batera jokutzen dabelako bide barri onetan, baiña Ikastetxe Nagusisirik gaienak eta irakaslerik geienak emen be Eleizerarenak dira. Iñoz erregeak be sortzen dauz, baiña ona emen Aita Santuak sortutako batzuk; Bolonia, Salermo, Palentzia, Salamanka, Montpellier, Toulouse, Amiens, Paris, Kanbridge, Oxford.

Eleizearen aldetik lan barri au egiteko erakunde barri batzuk sortu ziran, eskaleak esaten jaken lekaide-motak “mendicantes”. Ezagunenak Domingotarrak eta Frantziskotarrak. Ortik etorri ziran Akino´ko Tomas deuna eta Bonabentura Deuna ta abar.

Jakintza-arloan erri-maillan be ba-dabil zerbait: Erriko poemak, XII Alfonso erregeak batutako kantigak eta India eta Persia´tik arabeen bidez etorri diran alegi edo fabulak.

Baiña gu edertiari begira gagoz eta arlo onetan be aldakuntza aundia dator erromanikotik gotiko-ra.

Asteko esan daigun “gotiko” izen au Italia´ko Vasarik oker ezarria dala. Ez dauko zer-ikusirik godoakaz. Dana dala, izen orregaz jarraituko dogu.

Gotikoa deritxagun eder-lanaren tankera onek, batez be etxegintzan, argibilla ibiltea eta beti gorago igon gurea agertzen dauz eta ori torre luze eta erpinduetan eta leiar koloretsuetan agertzen da.


Erromanikuen etxerik gurenak lekaide-etxeak ziran lez, gotikoarenak gotzain-eleiza edo katedralak izango dira.

Len arku oboerdia izan da, baiña orain begi-antzekoa eta ojibala dator, erpinduna “apuntado”.

Iruditegiak (retabloak) ondo apainduak torretxu zorrotz beterik eta ageburu bikotzak: Akanto-lorak eta bolutak.

Sabaia len koñoia eritxona zan, obo-erdiagaz egiña eta orain arkuak erpindunak dira eta sabaia kurutzatua.

Ageak luze biurtzen dira eta gaiñearen astuntasuna zati bat artzen dabe, baiña ez dana. Astuntasun orreri erantzuteko len matxoiak edo estriboak egon diran lez orain arbotanteak daukaguz, ormeari albotik eusteko.



Tankera gotikoak, teillatuaren astuntasunari albotik be eusten dautso arbotanteakaz.

Apainketa be ez da lengoa: landarak artzen dira apaintzeko, batez be intzurria, kardua ta matsa, piztiak len baiño biziago agiri dira, gizakiak be ba-rru-miña geiago agertzen (irribarrera, jokoa), atea eta age-bu-ruak apaintzen dira, baiña beste era batera. Koruko jesarlekuak, iruditegiak eta leiarrak be era barri baten agiri dira.

Eleiz-barruan iru edo bost erri-leku izango dira eta erdian kurutzea egiten beste bat eta au gorago doa. Alboan triforioa edo galeria.


Len torrea ez da agertzen izan, teillatuaz amaitu baiño, edo agertzen ba´zan lodia zan, orain torre luzeak, erpindunak eta ondo apainduak agiri dira.

Eleizearen alboetan kapillak dagoz, sarritan ormatik kanpora be urteten dirala.

Beste apaingarri berezi bat rosetoiak dira, leiarrezkoak, margotsuak, argitsuak eta oso ederrak, geienetan koru-gaiñean eta sarritan alboetan be bai.

Berezitasun guzti oneik batera inoz ez dira agertzen, an or emen baiño.


Agertu daiguzan laterrik laterri edertasuna batzuk:



Frantzia'n: XII gizaldian asten da erromanikua barriztuzten eta or dago Bernardo Santuaren ikutua edo Zisterra. Lenengoa Paris'ko Saint Denis gotzain-eleizea da. Beste Gotzain-Eleiza asko dagoz.

Paris'ko Saint Denis. Lenengo Gotzain-Eleiz gotikoa.

Italia'n: Emen gotikoak tankera berezia dauka, jatorra, margo askoko marmolagaz, leiarrak gitxiago eta orma geiago. Orvieto'ko Gotzain-eleizea ederra da, XIII gizaldikoa. Milan'goa be ede-



Orvieto'ko Gotzain-Eleiz gotikoa, Italian

rra ta torre askogaz.


Inglaterra'n: Wels'ko gotzain-eleizea, 1191n. urtean asiatu eta XIV gizaldian oraindiño egiten.

Alemania'n: Erromanikoak luzaro jarraitu eban, gero biak nasteen. Kolonia'ko gotzain-eleizea eredu .

Portugal'en: XV gizaldian dago bizi eta erregearen izenetik, "manuelino" esaten jako tankera oneri.

España'n: Gotzain-eleiza asko eta ederrak dagoz, eza-gunena Burgos'koa.


Olazar'tar Martin



Wels'ko Gotzain-Eleiza gotikoa (Inglaterra'n)



Kolonia'ko Gotzain-Eleiz gotikoa (Alemania'n)



Portugal: Lekaide-Etxea gotikoa (Manuelino tankera)



Burgos'ko Gotzain-Eleiz gotikoa.

LEGE ZARRA

II LEGEA: KORREXIDOREAREN AURREAN AGIRIAK EGITEA

Baita esan eben: Korrexidoreak edozein eskribau artu leike, baiña izan daitezela aitaren eta aititaren aldetik-jaiotzaz Bizkai'koak eta eskribaua olakoa ez ba'da beronen agiria balio-gabea izan daitela eta onartu dauan korrexidoreak kalteak ordaindu dagizala.

III LEGEA: ESKRIBAUAK AUZIBIDEAK BIZKAIA'N ITZI DAGIEZALA

Baita: Jaun aundiaren aginduz aztertzaile bat Bizkai'ra ba'letor, bere eskribaua kanpotik ekarri daike baiña idazten dauana konderrian itzi bearke dau, orrelan egin ezik, bizkaitarrai kalteak etorri leikiezalako. Eta guzurrezko lekukorik izan ba'da, berau zigortzeko bear diralako eta kanpora billa joatea gauza gaitxa litzakelako.

IV LEGEA: ESKRIBAUEN SARIAK ETA AUZIA LETRADUNAI EMOTEA.

Baita: Jaunerri onetako eskribauak artu bear dabezan sariak dirala-ta, araudiak diñoanak izan daitezela eta agiria letrauari emon dagioela eta orri bakoitxeko marai bat artu dagiala, ez geiago.

V LEGEA: AURREKO GAIARI BURUZ.

Baita: Eskribauak lan-sari araudia oso-osorik bete dagiala, esandako zigorren menpean, eta letrauai emon bear jakezanean, orri bakoitxeko marai bat artu dagiala.

VI LEGEA: ESKRIBAURIK EZ DAITELA IZAN LEGE-GIZON.

Baita: Korrexidorearen eskribau batzuk ez dabe naikoa izaten eskribau karguagaz eta ordelari-lanak artzen dabez. Eta ortik kalteak etorten dirá auzibidetarako. Eta eskribaua arerio biurtzen da. Azpikeri ori Bizkaia'n galezteko, auxe agindu eben: eskribau bat be ez daitela lege-gizonen lanera sartu. Orrelan izan ezik, legezko zigorren gaiñera, bost milla marai ordaindu bearke dauz, lenengo zatia bidegintzarako, bigarrena salatariarentzat eta irugarrena tokiko gaiso-etxerako eta bertako bear-

tsuentzat. Eta bigarren aldiz ori egiten dauanak alako bi ordaindu dagizala eta esaneko erara banatu. Epaikariak ez dagiala onartu letrau ezagunak izenpetu bageko agiririk eta ori beteten ez dauanak irureun maraiko zigorra izango dau bakoitxean, aitatutiko erara banatzeko.

VII LEGEA: ORDELARIÁK ZELAN ONARTUAK.

Baita: Bizkaitar asko lanik ez egitearren ordelari lez agertzen dira, sarritan irakurten eta idazten jakin bagerik eta ortik erriari kalte aundiak etorten jakoz. Orregaitik auxe agintzen dabe: Irakurten eta idazten ez dakianik ordelari ez daitela izan. Ori bete erazoko dau korrexidoreak esaneko nekeenpean. Epaikariak be ez dagiela orrelakorik onartu, aurrean esandako nekeenpean.

VIII LEGEA: JABEZ ALDATUTAKO AUZI-ESKUBIDEAK.

Baita: Bizkaia'n ikusiak ikusita, ordelari orreik auzi erabagiak erosi egiten dabez, eskribauak be bardin egiten dabela. Eskubide-aldatze oneik merkeago erosi eta bete-azo egiten dabez eta artzekodunakaz banatu be egiten dabez, eta makilladuna epaikariak diralako, al derdiak ez dirá aurka egiten ausartzen Orregaitik esan eben: Eskribaurik ez ordelaririk ez daitela auzi-eskubideak artzen ausartu zigor oneinpean: Lenengoz danean, artu daben guztia zordunari biurtu dagitsela eta zigorraren iruren bat izan daitela salatariarentzat, beste bat errilan edo bidegintzarako eta imgarrena epaikariarentzat.

Bigarrenez olakorik egiten dauanak alako lau ordainduko dauz eta irugarrenez danean alako zazpi eta geiago ezin izango da olako kargura sartu. Eta zigorren ondorenak esandako eran banatuko dira.

IX LEGEA: ELEIZ-GIZONAK NOIZ ORDELARI IZAN.

Baita esan eben: Eleiz-gizonik ezin daitekela izan erri-auzitegian ordelari, beraren eleizearen edo eleizgizonen edo aitaren naiz amaren edo adinbageko arloteen orde izan ezik eta epaikariak be ez dagiezela onartu.

Olazar'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

ABIZENAK

Gorrotxategi: Zegaman etxe bi, baita Garaikoa ta beste Azpikoa. “G-” gero ezarria izan ezker, “Urritxategi” litzake eta urretx asko dagon lekua da: “-tegi” tokia ta ugaritasuna da. Legazpian 1407an agertzen da.

Goienetxea: Baztan´en eta Benebarran agertu zan eta Bizkaira ta Gipuzkoara zabaldu. Goren dagoen etxea esan nai dau. Ezkiogan 1470.

Goioaga: Zeanuritik dator eta ”Goio” ez da besterik “Goia” aldatua baiño eta azkenengo “-aga” toki-atzizkia. 1672n. urtean badabil.

Gebara: Naparroan agertzen da 1134n. urtean eta gero Arabara zabaldu. XII gizaldian toki askotan agiri da. “G-” gero ezarria da eta “-ebar-” irea, , orduan irea dagon lekua da.

Gerena: Mallabian dago auzo bat eta “-aran-”egaz daukola zer-ikusia diño Lopez Mendizabal´ek, beste batzuk “Geraren etxea” dala diño.

Gereka: Arrietatik asita, Mungialdean zabal dabil. Irea dagon tokia da eta 1734´an Bilbaon agertzen da.

Gerekiz: Morga´n dago auzo bat eta andik zabaldu da. Irea dagon lekua esan gura dau eta “-iz-” abizenaren ezau-garri da.

Gisasola: Eibar´etik zabaldu da. “G-” gero ezarria da eta -isas- ote antzeko landarea, retama. Azkenenko “-ola”k ugaritasuna adierazten dau. 1664n. urtean agertzen da.

Gizaburuaga: “G-” gero ezarria. “-iza” zia edo “junco” da eta “burua” gainean dagoana. Orduña “Zien gainean dagon tokia”. 1708. urtean Elorriogan agertzen da.

Guridi: Legazpian asten da eta Gipuzkoan zabaldu. “G-” gero ezarria da eta -uri- irea. Azkenenko “di” ugaritasuna. 1654´an Arrasaten.

Gurpegi: “G-” gerokoa da, “-egur” sutarako zura, “egi” tokia. Sugarria dagon tokia: “-pe-” azpian dagon. Egia: Santiagon 1702.

Gurtubai: Atxondon. “G-” gerokoa dala, “urtu” gargar antzekoa da eta “-bai” tokia. Elorriogan agertzen da: 1685.

Gurrea: Naparroatik urtena da baiña Soriara zabaldu eta an agertzen da 1134. urtean. “G-” gero ezarria da eta “-urre-” urretxea, eta “-aga” toki-atzizkia.

Gurrutxaga: Zumarraga´n dagoz etxe bi eta andik Gipuzkoarik geienara zabaldu da. Gero Indietara. Gurutzeaga dagon lekua esan nai dau. Beste batzuk “urretxa” dala diño jatorria. Aurretik “G-” proteica ipiñi eta “-aga” toki-atzizkia.

Haro: Bizkaiko jaunen avisen onek badauko zer-ikusia Errioxako Aro´gaz, XII gizaldian. Garo irea da eta ortik dator abizena. Navas de Tolosan 1212 urtean agiri da.

Yandiola: Gueñesen eta Okendon agertzen da 1668 urtean. “Y-” geroago ezarria da eta “-andi” bedarlekua, “-ola”k atzizkia danean ugaritasuna dager.

Yartza: Lekeitio sortua da baiña Gipuzkoara zabaldu da geiago. “Iar” erderazko “arce” da eta “-tza-” asko dagon tokirako atzizkia. Urretxun agiri da 1322. urtean.

Ibabe: Aramaionakoa. Izan leiteke ibarraren be-aldekoa edo ibaiaren be-aldekoa. Aramaionan 1750.

Ibaibarraia: Markiñan 1772´an. “Ibai-” errekea, “-barri-” tokia eta “-aga” toki-atzizkia. “Ibaiaren ondoan dagon tokia”.

Ibarbengoetxea: Gamiz´en dago etxea eta “Ibarreña berengo dagon etxea” esan nai dau. Balladoliden 1815.

Ibargarai: Arrazolan dago. “Ibarraren goialdean dagon etxea” esan nai dau. Bilbaon 1728.

Olazar´tar Martin´ek

(18) EMEZORTZIGARREN SALMOA JOAN BATAIATZAILLEAREN

Jaun-goi-ko Aita-maitetza-
tu-gu zeru-ko Errege-aren Jainko-
semea, maitetza-tu-gu gure-
on Sabai-tzaile-a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a
ze-ru-a-lai-ta-zen e-maitetza-
a-ni-man Se-na-ria ze-ru-a po-za
sor-tzen lan-gi-ke-a

1

Eldu zanean denbora ura
aurra argitaratzeko,
igarle aundi izango zana
Bildotsari laguntzeko,
Mariari eman zien aurra
berak besotan artzeko,
ta Isabelek eskatu zion
Jainkoari eskeintzeko.

2

Aur au jaio ta eldu zanean
zortzigarren egunera,
auzoko eta berentar asko
juanak ziran ikustera,

zartuta seme bat zuelako
zorion asko ematera,
eta legea zeuken bezela
oni izena jartzera.

3

Asi ziraden batzuek deitzen
Zakarias aurtxoari,
Isabel amak: "Joan izena
jarri bear da aurrari."
Erantzun zien: "Oitura degu
aitarena semeari."
Izena nola? "kiñuk egiñaz
galdetu zien aitari.

4

Zakariasek eskatu zuan
pluma bat eskribitzeko,
ol txiki baten ipiñi zuan
Joan izena jartzeko.
Mutu zegoan eta Birjiñak
eskatu ori kentzeko,
agindu zion bere mingaïnez
Jainkoa bedeinkatzeko.

5

Une onetan Jaun Espirituz
izan zan betetakoa,
esan zuan: Bedeinkatua
Jaungoiko Isrraelkoa.
Bere erria bixitatu du
berak erositakoa,
ta jaso digu indar osasun
Dabid bere etxekoa.

6

Lendik esana zeukan bezela
Igarlean aotikan,
osasun onek libratzen gaitu
gure etsaietatikan,
eta gorroto diguten aien
danen eskuetatikan,
agerturikan errukitsua
gure gurasoetatikan.

7

Oroitu zuan Abraaneri
agindua emateko,
etsaietatik atera eta
bildur gabe serbitzeko,
santu ta justu bere aurrean
il artean bizitzeko,
eta zu aurra izango zera
igarle erakusteko.

8

Bere aurrean juango zera zu
bideak preparatzera
erakutsiaz nola datorren
pekatuak barkatzera.
Bere errukiz gure Jainkoa
dator gu bixitatzera,
argitutzeko illun daudenak
eta pakean jartzera."

**(19) EMERETZIGARREN
SALMOA MARIAK
DESPEDITZEN DITU
EMENGOAK**

1

Jose santua etorria zan
abixatu zienean,
Maria belauniko jarri zan
senar Joseren aurrean.
Eskatu zion bendizioa
ta eman zion onean:
“Barka eidazu ez serbitua
emen negon bitartean”.

2

Jose santuak erantzun zion
Maria emazteari:
“Zu ikusteak alaitutzen nau
autsiaz lengo penari,
baita zurekin zure onduan
izango nitun pozari.”
Egunen batan deskansatuta
agurtu naiangoari.

3

Maria juan zan despeditzera
apaiz Zakariasgana,
Jaun Espiritu Santuan argiz
ezagutu zuan dana;
ta esan zion: “Abestu beti
Jauna, egin zaituana,
ta bedeinkatu, beretzat Ama
aukeratuta zezana”.

4

Oroitu nitzaz eta eskatu
Jaungoiko gure Jaunari,
eraman nazan erbestetikan
emanaz pake ugari,
eta zu gatik merezi zadan
ikustea Jainkoari;
baita eskatu seme Joan eta
errian alde Berari”.

5

Mariak belauniko jarrita
eskatu bedeinkatzeko,
atzeratzen zan erregutuaz
“Nago zure artzeko”.
Baiñan Mari eske zeukan da
eman zion lasaitzeko
eta mun eman zion eskuan
eskatuaz barkatzeko.

6

Maria juan zan despeditzera
Isabel lengusuari,

negar samiñez ezin itzikan
egin zion Mariari.
Erantzun zion: “Nere maitea
ez samindu biotzari,
denbora eta leku danetan
serbitzen gaude Jaunari.

7

Jaunagan zuri begira nago
eta etzaitut artuko,
eta zuk ere Beregan neri
beti nazu billatuko.
Gure bizitza oso motxa da,
laister zaigu bukatuko,
grazian bidez laister zeruan
poza etzaigu aituko.”

8

Ama Birjiña eldu zanean
Joan aurra ikustera,
besuan artu eta miraziz
eldu zan itz egitera:
“Bedeinkatu nazazue biok,
Jaunaren Ama zu zera;
eskeintzen naiz ni zuen morroi
graziarekin batera.”

**(20) OGEIGARREN SALMOA
JOSE ETA MARI BIURTZEN
DIRA NAZARET ERA**

1

Atera ziran Juda erritik
Nazaret-era juateko,
Ama Birjinak presa zuala
beren etxean sartzeko.
Lau eguneko bidea zuen,
ala zuen etortzeko,
lau ostatutan gelditu ziran
gau aldiak pasatzeko.

2

Ostatu baten billatu zuen
andre bat ain gaixotua,
ona zalako etsaiak zeukan
gorputz ta anima lotua.
Jose santua Birgiñarekin
etxe artan zan sartua,
Ama Birjiñak otoitz eginda
gelditu zan sendatua.

3

Bide auetan biurtu ziran
etorri ziran antzera,
eldu ziraden beste ostatu
batean lo egitera.
Nagusi ura gaiztoa zala

alai juan zan serbitzera,
Birjinak ordeztu egin da
biurtu zan ondutzeroa.

4

Ama Birjiñak oroitzen zuan
Nazareteko bidean:
aurra iru illebetekoa
zeramakin sabelean,
Josek zer pena izango zuan
ezagutzen zionean;
serbitzen zion errukiakin
al zan era onenean.

5

Jaunaren naia jakin nai
Joseri au agertzeko,
Jaunak etzion ezer esan
zeukan berak esateko
merezimendu geiago
ala irabazitzeko.
Birjiñak otoitz egiñaz
Jaunak Jose alaitzeko.

6

Eldu ziraden Nazaretera
berena zuen etxera,
Ama Birjina aingeruaz
juan zan etxe garbitzera
Jaungoikoaren borondatea
gogo onez betetzera;
Jose santua arotz-lanakin
jana irabazitzera.

7

Etsai arroak gorroto zion
Ama Birjiña onari,
alegin danak egiten zituen
ernegaritzen berari:
“Emakume au animak kentzen
dabil gure indarrari.”
Baiñan Birjiñak umiltasunaz
zapaldu zien danari.

8

Jaunak indartu zuan Birjina
etsaiak menderatzeko,
burruka aundik egin zituen
luze Birjiña galtzeko.
Seme Jainkoak grazia eman
etsai buruak lertzeko,
orreatan aingeruk zituen
Jainkoa bedeinkatzeko.

**Aldur'tar Justiñe
Lekaine Klaratarra
(Gasteiz'en)**

URDANETA TAR ANDRES

Urdaneta ta Zerain'dar Andrés Ordizia'n jaio zan 1508n. urtean eta Elkano'gaz sartu zan Ameriketa'ko zeregiñetara. 17 urtekoa zala bere laguntzaille zan baiña batez be ospetsu biurtu zan espezien billa egin eben bigarren osteran, Magallanes' en itxaso estuan.

Bide ori egiten ebiltzala, guztien buru zan itxas-ontzia galdu egin zan Loaisa' gaz eta Elkano'k artu bear izan eban agintaritzaz. Onek bere nagusiaren billa Joan nai izan eban, baiña ez eutsoen itzi. Bost itxas-ontzi ziran eta 1526n. urtean eldu ziran Santa Krutz'era. Andik itxas-esturantzaz jo eben, baiña ekaitz aundi bat sortu zan eta Elkano'ren ontzia aretzan kateatu zan. Itxas-gizon batzuk an il ziran eta besteak Elkano ta Urdaneta'gaz batera lurreratu egin ziran eta Urdaneta bialdu eben beste itxas-gizonen billa.

Ortxe artu eban Urdanetak, 18 urtekoa zala lenengo ardura aundia. Urrengo egunean eldu ziran ondatuak egozan lekura eta asko poztu ziran. Gaiñera bertatik ikusi al izan ebezan Loaisa itxas-ontziaren oialak. Pozez Joan ziran Elkano'ren aldera Urdaneta aurrean ebela.

Guztiak egozan alkartuta, baiña ez luzarorako. Barriro ekaitza sortu zan eta ontziditik amarrena galdu eben.

Urrengo ekiñaldian lortu eben Itxaso barera eltzea, baiña asko gaisorik eta zorriz beterik egozala. Santiago itxas-ontzia Mexiko'rantza joan zan zer-janik ez eukelako.

Iru illebate beranduago Marianas ugarteetara eldu ziran eta gero, Pilipiñetara eldu ziranean, Urdaneta'k basoetan billaketa bat egin eban, bide batez janariak ekarteko.

Molukas'era eldu ziranean, Portugal'darrakaz guda egin bear izan eben eta guda galdu ebenean Urdaneta'k

ez eban ituna onartu eta ugarte guztiak ikertzen ekin eban eta toki guztietan egiten zan lagun bertako inditarrakaz eta euren izkuntza be ikasi eban. Polbora-tonel bat lertujakon eta aurpegia erre eutson. Burruka galduta, inditarrak bizia zaindu eutsoen.

Portugaldarren ontzi baten etorri zan Erdi-Ugarte onetara. Koruña'tik urten ebela amaika urte ziran eta eldu ziranak ogei gizon. Urdaneta'k beragaz ekarri eban Molukas'en sortutaklo alabatu bat. 44 urtekoa zalá Urdaneta'k kapitaitza itzi eban eta lekaidetza artu Mexiko'ko Agustindarren etxean. Orrelan bere ospea aundia-gotu egin zan. Lekaidetzan sei urte egin ebazenean II Felipe erregeak eskatu eutson itxas-gizonen talde batera sartzeko baiña ez Itxaso Barera joateko, Pilipiñetara baiño.

Zalantzak izan ebazan, baiña egarri aundia eukan bidé ori argitzeko eta onartu egin eban. Pilipiñetara eldu zanean, Legazpi'k egiten eban lurra eskuratze-lana guda-kaz eta berak Jesuseen Barri Ona zabaltzen eban.

Barriro Erdi-Ugarte onetara etorri zanean asmata euken bide barri ori ziurtatu eben, II Felipe'k nai eban lez. Bide barri ori ondo be ondo etorri jaken salerosleai, orrelan Itxaropen Onaren edo "Buena Esperanza" lur-musturrera Joan barik, asko bide laburragoaz, "Galeón de Manila" eritxon ontzia artuta Txina, Pilipiñak eta India'ko espeziak Mexiko'ra ekarten ebazan.

1566n. urtean Urdaneta Erdi-Ugarte onetan izan zan eta ainbat bider artu eban II Felipe'k eta laster Joan zan Mexiko'ra eta an il zan 1568n. urteko bagillaren 3n. egunean.

Olazar'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebago orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALERRITIK ZEAR

Olazar´tar Martin´egaz sarri egoten naz aldizkarirako nire idaz-lanak zuzentzen edo bear dogun guztirako. Eta noz bein gauzea tentaldi-arloro eroanda: “ia noz egiten dogun egun baten alaitasunezko osteratxo bat Euskalerrria obeto ezagutu daigun” esaten dautsetenean, berak ezer esan barik, urrengo alkar-eguneko tentaldira arte itxaro dau, eta orduan atara egun orretarako egitaraua.

Oraingoko egitaraua irakurten asi zanean, bidean esan-go daustela esan neutson, eta ondo dagoela esan ondoren Solozabal´tar Paulin be, gugaz etorriko zala esan eban.

Alkar-eguna Zornotzan Bagilla´ren 1´ean goizeko 10´etan non eta noizko egun-orduak ezarrita, irurak Zornotza´tik urten gendun Kexana´runtz, bidean Luxaondo´n geratuta “Zugatz-Malato”ren oroi ingurua ikusteko.

Irugarren edo laugarren apainketako aldakuntza da Larunbatean ikusi genduna, eta ez dabe egin ganorazko oroi gaillu bat, Euskalerrriko zanean legean “Zugatz-Malato”k gogora dakarren oiturazko legeen erakusmena jendarteari ezagutzera emoteko.

Arrespalditza´ko bidea artuta Kexana edo Kexaa´ra joan giñan an dagozan dorreak eta erakus-tokiko ingurua ikustera.

Aiala´ko ibarra mendi aundien artean mugatuta dago, Ego aldean “Sierra Salvada”, bere bizkarrean 1.185 m.´ko goieraz Eskutxi mendia luzetzen dala. Eta Iparraldean Mena eta Aiala´ko ibarrak zarratzen dauan 998 m.´ko Ganekogorta aundia.

Kexana edo Kexaa inguratzen daben erriak, Iparraldek: Beotegi, Billodas eta Iburguen; Egoaldetik: Ozeka, Menoio eta Izoria; Mendebalean: Erbi eta Luxu; eta Eki-aldean edo Eguzki-aldek: Arispaldiza 1.095 urteko agirian agertzen dan antzera, edo Arrespalditza gaur izendatuta dagoan lez, dira.

1.095´eko urteetan Lekaidetxea aipatzen da, baiña daukazan babeserako dorre aundiak ez dira egiten XIV´n gizaldi amaiera arte. Aiala Ibarra´ren eleiz, baseliza eta lekaide/lekaimetxe askotako arduradunak izan ziran bere abatak.

1.257 urtean, Aiala abade-nausigo edo abadeburumende (arciprestazgo) agertzen da, beste 10 apaizburumendeakaz batera: Orduña, Zuia-Barrutia, Kuartango, La Ribera, Trebiño, Bitoria, Ganboa, Leniz eta Egilaz´ekin antziñako Araba osotzen ebenak. Onen oiñarririk Araba´ri IX gizaldian Gotzaintasuna emon jakon eta Araba´ko konde guztien indarra ezartzen zan bere magalean.

Oroigarri ederra da Kexaa´ko inguru ori, edestian zaa-

rra eta oso aberatsa dalako. Aiala´ko jauntxutasunak Nafartar, Leoneko leenengo eta gero Leon-Gaztelarreko erregeakaz arreman aundiak euki ebazan.

Araba´ren eta batez be Aiala´ko edestian muturra apur bat sartuta ikusiko dogu: zelan, Ispania´ko I Karlos, Alemani´ko V, Bizkai´ko Jauna, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa´ren erregea-gandik asita, Cisneros kardinala aaztu barik, Espaina´ko kaizergotzaren ametsdunak azten dira erdi-ugarte onen barruan dagozan erriak batzangotuten, maltzurtasunean, zuurtasunezko lege eta guda-indarrak erabiliz. Baiña Habsburgotarrak ez eben lortu ori, erri berezien legeak iraun egin ebelako 1.838´ko urtean guda-ko izkilluakaz eta guzurrakaz Euskalerrria menperatu eben. Alde-batetik, Aiala´tarrak leen Euskaldun berezko erri-legearen aldekoak ziralako, nai-ta euren jabetasunezko Murga´tar leiñukoak, I Karlos´en aldekoak izan.

Dorretzar barruan dagoan “Virgen del cabello” otoiztokira sartu giñan leenengo, eta bertan dauan erretaula edo aldare-buru ederra ez da sortzezko edo jatorrizkoa aldatua baiña, kantziller´en aldare-burua Txikago´ko erti-eder´en ikastetxean dagoelako.

Bertan, eliz-mai aurrean Lopez de Aiala´tar Pedro eta Guzman´tar Leonor´en illobi-irudi ederrak dagoz kokatuta.

Lekaimetxe´ko (bebarrukoak diran “clarisas”: argizaleak?) eleizara joan giñan gero, eta nundik-nora ikusi neban, guri txikitan ainbeste atsegin emoten euskun izena Sarmiento´tar Maria´ren illetako soin-gaiña alde batean, eta bestean Perez de Aiala´tar Fernando´rena.

Geiena ikusi gendunean, liburuak erosi genduzan. Bat ederra beintzat, Kexaa´ko dorrea egin zanetik 600 urte bete ziranean argitaratutako oroit-arazle edo gomutagarriko liburua.

Amurrio´ko bidea artuta Orduña´ra Antigua´ko Amaren eleiza ikustera joan giñan. Ango edertasunak ikusi ondoren, bertako liburua erostera, baiña txirrina jota ez zan agertzen iñor.

Orduña´tik Espejo´ra joan giñan bazkaltzeko, eta eze-ren premiña barik an egon giñan solaseko izketaldi eder baten Pauliñ´ek txokor ederra erre-arte.

Angosto´ra joan giñan Ama Birjiña´ren leize-zulo edo koba ta erreka ikustera, lekaidetxe ederra, eleiza ta inguruak ikusita Balpuesta´ko Done Maria´ren Kolejiata (zelan euskeraz?) Gotzain-Eleiza izan zana Autrigo´en Gotzaiña an egon zalako, Nerbioi-ibaitik Balpuestara´ko lurrak kontuan artuta. Guztiz ardura-gabean dago ain garrantzi aundiko eta oroimengarria dan eleiza, dorre eta

inguruko etxeak. Gure eskuetan egon bear ziran zaintzeko, Espaina menperatzaillearen eritzikoari ez dautselako ardurua Euskalerriko edestia. Alpertasuna errepideetan be argi ikusten dala.

Balpuesta´tik Basabe´ra joan giñan Pauliñentzat iru urtean leenengo apaiz-erria izan zana eta irurogeita iru urte andik urten eballa.

Eleiz ondora joan giñan eta etxe baten aurrean ezarrita andra-gizon zartsu bi egon ziran.

Gurditik beratu gintzazenean Paulin euroi begira adarra joten asi jakien.

Pauliñek itandu eutsoen ia eurak nungoak ziran, eta erantzun ondoren eurok be alegindu ziran ia gu nungoak giñan itanduten.

Martin´ek, Mungia´koak garela esan ondoren, gizon zarra Ortiz de Zarate eta Urtaran´tar Angel deitzen zanak: Mungia.....(eta ezar-lekutik jauzkada egin eta beragana joanda), Paulin !! esan da besarkatu eben.

Olan egon ziran zati baten eta Angel´ek beren andeari Oribe eta Kinkozes´tar Sokorro deitzen zanari Alberto´ren billa joateko esan eutson.

Alberto esan egon eta eleiza ikustera joan giñanean Paulin aldare aurrean erdi ametsetan geratuta, Martin´eri esan neutson: “zenbat arpi ibiliko ote da gogoratzen unetxo onetan”. Martin irripartxu bategaz erantzun eustan, eta laster Paulin´eri gogoratu eutson gure ostera ez zala amaitu oraidiño.

Martin eta ni eleizatik urtenda gurdira joan giñan, eta birritan gurdiaren txirrina jo izan bear gendun bizkortu daitezcan.

Ez da gutxiagorako, irurogeita iru urte geroago leen, euren gaztetasunaren arreman-miñako gertakizunak gogoratzen asi ezkeru. Kontuan artuta: 1.936´ko guda osetetik 1.940-1.944´ko denbora latzak izan zirela.

Senar-emasteak agurtu ondoren Kinkozes´era joan giñan Artziniegako bidea artzeko, eta bertan Intziña´ko Ama Birjiñaren Santutegia ikusteko.

Eleiza ikusi ondoren lekaretxearen atea jo gendun bertako liburua erosi gura gendulako, baiña an ez eben iñork atea zabaldu.

Lekaidetxe ederra eta ondo apainduta dagon ingurua da, danok ikusi bear doguna. Bide batez beren edestia ezagututa, jakin daigun zelako edertasunak daukaguzan gure Euskalerrri maite onetan.

Gordexola´ra joan giñan eta ostera amaitzeko Somorrostro´ko burni meaztegi ingurua ikustea egon zan lez Martin´ek asmatutako ibilbidean, txirringa baten gaiñean etorri zan gizon bateri itandu geuntson ia bide labur bat ezetuten ba eban ara joateko. Ezetz esan ebanean eta berandu ta bide-luzea izan zan lez..... gizon aregaz denbora apur baten alkar adarra joten egonda etxerako bidea artu gendun.

Egun ederra ospatu gendun, batez be, Euskalerrria gaurtik aurrera obeto ezagutzen dogulako beren arimaren izaera eta irudian, benetan ederra dana.

Zornotzan agurtu gintzazenean, ostera au ez dala aske-nekoa izango´ren asmoakin bakotza beren etxera joan giñan.

**ATUTXA´tar PAUL
ZORNOTZA´n 2.003´an BAGILLA´ren 9´an**



BILBAO
UDALA
AYUNTAMIENTO

LAGUNTZAILLE


IPUIN-SARIKETA (BILBAO´KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA´k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA´k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuiñak asmatutakoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER´en argitaratuko dira.
Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKARAZALEAK ALKARTEA´ren etxean (Bilbao´ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer´en agertuko da, Urterrillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.
- Sariak lau izango dira:
 - 1.ª 300,50 euro.
 - 2.ª 240,40 euro.
 - 3.ª 180,30 euro.
 - 4.ª 120,20 euro.
 - 5.ª 60,10 euro.
- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKARAZALEAK

EUSKALDUN BARRIENTZAT



MARRAZJ ONETAN; ZUZENKAI, TXIMELETA, MAKILLA, IDATZI, TA URRUN-IKUSKIN DAGOZ.

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²